



BIGARREN ATALA

BIZKAIKO BASERRI-ESKOLA BATEN

Ikuslien eskerreko aldian mai asitsū bat. Toki agiri baten kurutzia esegiā. Beren azpidšan Erregiñan irudidša, eskoletan oi danez. Or da emen eraz esegiā irakurteko *kartoiak*. Sei edo zazpi errenkadatan umientzako dsartokidsak irasteko maitšu ta guzti. Dsartokidsen inguruan igiū beitez ogetalau bat ume-kondo, ta bira biraka geldi geldi dabilzala erezi beidsez gero erakutsiko dirian berbaak. Maisua egon bei zutunik beren mai-onduan, beren ondotik igaroko dira umiak eskolatik urteteko; bifartian umiak banan banan erakutsiko dautsez berari euren atzazalak eta esku-barruak.

I.º AGERRALDIDŠA

MAIŠUA, ESKOLA-UMIAK URTEĀTEN DA GEROTSUAGO
TŠOMIN

EREZIDŠA

*Buenos seamos
que Dios nos vé. (I)*

(I) Aldi baten gure eskola askotan erezten zan maišu erdal-dunak ekarririko erezi au.